

Lehendakariak 2009-2010 ikasturtea ireki du Mondragon Unibertsitatean

2009/09/23

Irailaren 23an hasi du ofizialki ikasturtea Mondragon Unibertsitateak, **HUHEZIn egindako ekitaldi batean**. Bertan izan dira **Patxi López** Eusko Jurlaritzako lehendakaria, **Isabel Celaá** Hezkuntza sailburua, **Javier Sotil** MUko lehendakaria, **Iosu Zabala** MUko errektorea eta **Idoia Peñakoba** MUko idazkari nagusia. Horiekin batera, **Iñaki Goizelaia** eta **Jaime Oraá** izan dira, EHUko eta Deustuko Unibertsitateko errektoreak, eta MUko dekanook, irakasleak eta bestelako gonbidatuak.

Idoia Peñakobak azaldu duenez, 2008-2009 ikasturtean **3.494 ikasle** matrikulatu ziren MUn. Horietatik, 3.099k gradu-ikasketak egin zituzten, eta beste 395ak graduondokoetan eta hirugarren zikloetan matrikulatu ziren. Idazkari nagusiak nabarmendu du **doktoretza-programetako matrikulazioek** izan zuten igoera, **%13koa** aurreko urtearekin alderatuz.

Hitzaldi akademikoa, berriz, Aitor Zuberogoitia irakasleak egin zuen, gai honen inguruan: "Komunikazio ikasketak Interneten garaian: beharrezko apustu baten oinarriak". Iosu Zabala MUko errektoreak unibertsitatearen egitekoa azpimarratu du, "unibertsitatea baita gizartearen giltzarria, inguruneko enpresa-ehuna eraldatzen ari den herrialde baten etorkizun ekonomiko eta sozialaren gakoa". Halaber, nabarmendu du MU zelako ahalegina egiten ari den moldatzeko Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrura, eta ez du ahaztu Basque Culinary Center ekimena, Donostian egingo dena.

Isabel Celaá Hezkuntza sailburuak azaldu egin ditu bere sailaren azken erabakiak, eta aitortu egin du MUren lana, zeinari laguntza eskaini baitio. Patxi Lopez lehendakariak, ostera, gaur egungo egoera larria aipatu du, eta deia egin die alderdi politikoei, eragile sozialei eta erakundeei, guztien artean krisiaren kontrako "aliantza bat" egin dezaten. Izan ere, "2010. urtean larria izaten jarraituko du", lehendakariaren hitzetan.

- Ekitaldiko argazkiak
- Hitzaldien testuak

